



## ERANSKINA

### DEIALDIA 2024ko UDAKO IKASTAROAK (uztaila/ abuztua/ iraila)

#### 1.- Parte har dezaketenak

AZPko langileek zeinek IVAPeko baldintza hau betetzen duten:

Udako ikastaro bat eskatu ahal izateko, **aldez aurretik IVAPeko deialdien bidez ikastaroren bat egina izan behar du interesdunak** eta, beraz, ikasprozesua hasia.

Aldi baterako langileek **ikastaroak dirauen bitartean unibertsitatearekin lan-hitzarmena** dutela egiaztatu beharko dute.

#### 2.- Udako ikastaroek bete beharreko baldintzak

- Ikastaroak **HABEk araututako ikastaro modulua** izan behar du.
- Ikastaroak, **euskaltegi publiko edo pribatu homologatuek edo autoikaskuntza zentroek** eman behar dituzte.
- Ez da 4. Hizkuntza-eskakizuna prestatzeko ikastarorik onartuko.
- Aurrez aurreko ikastaroek **gutxienez 80 ordukoak** izan behar dute.
- Autoikaskuntza bidezko ikastaroek **gutxienez 70 ordukoak** izan behar dute. IVAPek autoikaskuntzako ikastaroen eskaera **kopuru mugatua** onartuko dio erakunde bakoitzari. **Erakunde bakoitzak onartzen dituen lanorduz kanpoko eskaera deialdi guztien %20a** izango da autoikaskuntzarako bideratuko den kopurua

Matrikula-orrien bidez finantzatuko diren **ikastaroak** hauexek dira:

	Lanorduetan	Lanorduz kanpo
*Aurrez aurreko ikastaroa	BAI	BAI
*Autoikaskuntza ikastaroa	EZ	BAI

**\*Aurrez aurreko ikastaroak:** aurrez aurrekoak, aurrez aurreko telematikoak edota eskola batzuk aurrez aurre eta beste batzuk telematikoak. Baliabidea edozein dela ere, irakasleak eta ikasleak ordutegi zehatz bat bete behar dute elkarreraginean, hau da, eskola 08:00etatik 10:00etara baldin bada, bi ordu horietan elkarreraginean egongo dira, aurrez aurre zein bideokonferentziaz. Ikasle batzuk ikasgelan egotea eta beste batzuk urrutitik jarraitzea ere gerta liteke.

**\*Autoikaskuntza ikastaroak:** Euskaltegiek zein autoikaskuntza zentroek berariaz lineako ikastaroak emateko dituzten programen bidez ikastea. Nahiz eta tarteka tutoretza edo mintza saioak izan, oro har, lan gehiena bakoitzak bere kasa antolatzen du, programa horiek bakarka eta zehaztutako ordutegirik gabe erabilia.

#### 3.- Ikastaroen helburuak

Ikasleek ikasturtean zehar egindakoa finkatu eta sendotzeko helburuz eskaintzen ditu IVAPek udako ikastaroak, eta, datorren ikasturtera begira (2024/2025), ez da kontuan hartuko udako ikastaroan langileak egin duen urratsa, baizik eta 2023/2024 ikasturte honetan gainditu duen azken urratsa edo aurrekoak.



#### 4.- Eskerak

Interesatu bakoitzak, **gehienez ere, hiru ikastaro** eska ditzake.

Eskerak Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren web orrian dagoen inprimakia beteaz aurkeztuko dira modu telematikoan. Inprimakia helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/indarreko-deialdiak>. Eskabide bakoitzeko inprimakia bana bete behar da.

Eskera egin ondoren, eskatzaileek eskaeraren datuak berresteko mezu bat jasoko dute beren helbide elektronikoa. Berrespen hori UPV/EHUren erregistro elektronikoa erregistratuko da: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUren txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoa identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere).

Era berean, berrespena aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

**Nagusiaren oniritzia** behar da ikastaroa **lanorduetan** egingo bada. Eskariak egiteko azken eguna helduta langileak ez badu nagusiaren baimenik lortu, erreklamazioak egiteko epean aurkeztu ahal izango du baimen hori. Baina eskaria bera, sinadura gabe, epe barruan bidali beharko du, azalduaz zergatik ez duen nagusiaren baimenik lortu.

Nagusiek baimena ukatuz gero, txostena egin beharko dute **baimena ez emateko arrazoiak azalduta. Langile bakoitzeko txosten bat helarazi beharko da. Ez dira zerbitzu oso baterako txosten bateratuak onartuko**. Txostenak Euskalduntze Batzordeari bidali beharko zaizkio, 10 laneguneko epean, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzak liberazioetarako onartuen behin-behineko zerrenda argitaratzen duenetik kontatzen hasita. Epe hori erreklamazio egunekin bat etorriko da (**maiatzak 10-23**) eta **txostena helbide honetara bidali behar da: [euskara-plangintza@ehu.eus](mailto:euskara-plangintza@ehu.eus)**.

Ikastaro trinkoa langilearen **oporraldian** egiteko izanez gero, **ez da nagusiaren baimenik behar**.

**Ikastaro hauek egingo dituzten langileak ez dira inolaz ere euren lanpostuetan ordezkatuak izango.**



## 5.- Epeak:

- **Eskaerak aurkezteko epea: apirilaren 19tik maiatzaren 3ra bitartean (biak barne).**
- **Behin-behineko zerrendak: maiatzaren 14an** argitaratuko dira **ehutauletan** eta errektoreordetzako webgunean.
- **Erreklamazioak egiteko epea: maiatzaren 15etik 24ra arte.** Erreklamazioak deialdi honetako 4. puntuaz azaldutako prozedurari jarraituz egingo dira, Euskara, Kultura eta Nazioartekotze Errektoreordetzaren webgunean eskuragarri dagoen zuzenketa-inprimakia, dokumentazioa eta erreklamazioak beteaz.
- **Behin betiko zerrendak.** Euskalduntze Batzordea bildu ostean, **ekainaren 4tik aurrera** argitaratuko dira eta eskaerak IVAPer a bidaliko dira.

## 6.- Udako ikastaroen antolamendua

Baldintzak betetzen ez dituzten eskaeren kasuan, IVAPeK ukatu egingo ditu eta unibertsitateari jakinaraziko dio, honek interesatuari horren berri emateko, arrazoiak zehaztuz.

Baldintzak betetzen dituzten eskaeren kasuan, IVAPeK langileentzako **matrikula orri pertsonalizuak** bidaliko ditu Unibertsitateari (ekainaren bukaeran). Interesatuak eurak matrikulatuko dira aukeratzen duten ikastaroan; horretarako, matrikula orria aurkeztu beharko dute euskaltegian edo autoikaskuntzan zentroan.

Langilea **inon matrikulatzen ez bada, ahalik eta lasterren itzuli beharko du matrikula orria** Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzara.

Matrikula orria itzultzea ezinezkoa gertatuz gero, galdu edo apurtu delako, langileak, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzan idatziz jakinarazi beharko dio ez dela inon matrikulatu.

## 7.- Euskaltegien eskaintza:

Euskaltegi bakoitzak bere eskaintza berezitu egiten du: egutegiak, iraupena, ikasgelak, etab. Tokiari dagokionez, ikastaro batzuk euskaltegietan ematen dira eta beste batzuk, aldiz, bestelako etxe edo herrietan. Horregatik langileak eskaera Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzan aurkeztu aurretik, euskaltegi/barnetegira deitu beharko du aukeratutako ikastaroaren datak egiaztatu eta ziurtatzeko. **Oraindik HABEK eta AEK-k egiten duen eskaintza argitaratu edo zehaztu gabe badago, gutxi gorabeherakoa jarri beharko du eskatzaileak formularioan, gero aldaketa txikiren bat egon arren.**



## 8.- Ordu-kreditua udako ikastaroetan.

Ordu-kredituari dagokionez, Lankidetzaz Hitzarmena arautzen duen 2005eko azaroaren 30eko Aginduari jarraituko zaio. Ondorioz, **Udako ikastaroetan emandako orduak gastatu egiten dute langilearen ordu-kredituaren saldoa**. Horretarako, ikaslearen taldean lehenengo klase egunetik hasita eta ikastaroa amaitu arte emandako eskola-orduak zenbatuko dira. Langileak kontuan hartu beharko du hori datorren 2024-2025 ikasturterako, bere ordu-kreditua positiboa izan behar baita ikasturte hasieran.

Udako euskara ikastaroa hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da 2023-2024 ikasturtearen hasieran ordu-kredituaren saldoa aldekoa izana. Modu honetan aplikatuko da:

- **2023-2024 ikasturtea urrian** hasi zuten ikasleei ikasturtea hasi aurretik aplikatu zitzaien ordu-kredituaren kontrola; beraz, udako deialdian ez zaie berriro aplikatuko. Ondorioz, ikasturtea urrian hasi zuten ikasleek udako deialdian parte hartu ahal izango dute nahiz eta udako eskaera egiten dutenean ordu-kreditu negatiboa izan. Edozelan ere, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko dira, ikasturtean zehar emandako gainerakoak bezalaxe.
- **2023-2024 ikasturtea otsailean** hasi zuten ikasleei goiko paragrafoan azaldutako printzipioak aplikatuko zaizkie.
- Azkenik, 2023-2024 ikasturtean matrikulatuta egon ez direnak baina 2024ko udako ikastaroa hasiko duten ikasleei, eskaera IVAPen hartzen denean aplikatuko zaie ordu-kredituaren kontrola, eta saldo negatiboa dutenek ezin izango dute udako ikastaroa egin. Hau da, ikasle horiek udako ikastaroa egin ahal izateko, aldeko saldoa izan beharko dute; bestela, IVAPek bazter utziko du eskaera. Aurreko kasuetan bezala, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko zaizkie.

## 9.- Matrikularen ordainketa

Langileek ez dute matrikularik ordaindu behar. IVAPek hartuko du bere gain ikastaroen matrikularen ordainketa; barnetegien kasuan, baita ostatua eta mantenua ere. IVAPek ez du bere gain hartuko bestelako gasturik, hala nola, joan-etorriak edo materialak.



## 10.- Ikasleei buruzko informazioa eta datuen babesa

Euskara ikastaroa kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta dagokion sailari lagatzea. Horrela, IVAPek lanorduetan nahiz lanorduz kanpo ari diren ikasleen asistentzia eta ebaluazio datuak jasoko ditu, eta erakunde bakoitzari bere ikasleei dagozkienak jakinaraziko dizkio.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra); Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta datuak babesteari buruz indarrean dagoen gainerako araudia betez, jakinarazten da izaera pertsonaleko datuak «EAEko administrazio publikoetako langileen euskalduntzea» izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla. Tratamendu horren helburua izango da EAEko administrazio publikoetako langileen hizkuntza-gaikuntzako ikastaroak kudeatzea eta ebaluatzea, eta, hala badagokio, programatzea eta bertaratzea gestionatzea, bai eta hizkuntza-gaikuntzagatik esleitutako ordu-kreditua kudeatzea ere.

Tratamendu horren arduraduna Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendaritza izango da, eta haren aurrean, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Datuak Babesteko Ordezkariaren aurrean, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, transferitzeko, mugatzeko, aurka egiteko eta errebokatze eskubideak baliatu ahal izango dira, baita aplikatu beharreko araudiak aurrez ikusitako beste edozein eskubide ere.

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonen buruzko datuak EAEko langileen arloan eskumena duten erakundeei jakinaraziko zaizkie (bertaratzeari eta ebaluazioari buruzko informazioa); Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalizazio-planaren betetze mailari buruzko ebaluazio-txostena egiteko (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. artikulua); eta HABEri - Helduen Alfabetatze eta

Berreuskalduntzerako Erakundeari - (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez). Datuak ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legeak kontrakoa agintzen ez badu.

Datuak babesteari buruzko informazio gehigarri eta xehatua hemen kontsultatu dezakezu:

[https://www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren-erregistroa-tje/web01-aprat/eu/eu/contenidos/informacion/rat/eu\\_def/adjuntos/0215\\_eu.html](https://www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren-erregistroa-tje/web01-aprat/eu/eu/contenidos/informacion/rat/eu_def/adjuntos/0215_eu.html)